



euskalmendizalefederazioa

Batzarrean onartu beharreko EMMOari buruzko akordioak:

Patronatuko kide

EMMOA (Euskal Mendizaletasunaren Museoa) sortu zenetik, haren nahia izan da patronatuko kideetako bat EMF izatea. Fundazioaren estatutuen arabera, patronatua da fundazioaren gobernu- eta ordezkari-organoa, eta fundazioaren xedeak betetzeko beharrezkoak diren zuzendaritza-funtzio guztiez eta kudeaketa kontrolatzeaz arduratuko da. Gutxienez lau kide eta gehienez hamar izango ditu. Une honetan, patronatuak lau kide ditu: fundazioa sortu zutenetako hiru kide eta María José Lasa; azken hori 2016an sartu zen taldean.

EMFk eta EMMOAK 2015eko uztailean sinatu zuten hitzarmenean, akordioaren bigarren puntuan, EMF patronatuko kide izateko Batzar Orokorraren berrespena beharrezkoa dela jasotzen dago. Beraz, honako akordio hau onartzea proposatzen da: **EMFren lehendakariari baimena ematea, federazio hori EMMOA Fundazioaren Patronatuko partaide izan dadin beharrezkoak diren kudeaketak egiteko.**

Iparrorratzen dohaintza

Alberto Sanchok, Bizkaiko Mendi Federazioko lehendakari izan zenak, beti izan zuen ilusioa egunen batean Euskal Mendizaletasunaren Museoa sortzeko eta sorrera horretan parte hartzeko. Zoritxarrez, ezin izan zuen ilusio hori bete, ekimen horri ekin aurretik hil baitzen. Baina mendiko materialen bilduma osoa eta bereziki artxibo dokumentala eta mapak eta iparrorratzak, urteetan zehar bildutakoak, EMFri dohaintzan emateko nahia jasota utzi zuen, testamentuaren klausula batean.

EMMOAK atsegin handiz onartzen du ondarea, bereziki, iparrorratzen bilduma. Dohaintza egin ahal izateko, hainbat lege-izapide bete behar dira. Beraz, honako akordio hau onartzea proposatzen da: **EMFren lehendakariari baimena ematea, Alberto Sanchok EMMOari utzitako iparrorratzak eta mendiko gainerako materiala dohaintzan jaso ahal izateko egin behar diren kudeaketa guztiak ditzan.**

EMFren artxibo historikoak lekualdatzea

EMFk eta EMMOAK 2015eko uztailean sinatu zuten hitzarmenarekin bat etorritik, EMMOaren esku utzi da federazioaren artxibo historikoen ardura, antolamendua eta zaintza; gaur egun, Elgetako Udalean daude, baina EMF izango da beti horien jabe. EMMOAK, duen erantzukizuna betez, Bilbon dagoen Euskadiko Artxibo Historikoarekin negoziatu du artxiboak denbora batez han gordailutzea, Aranzadi Zientzia Elkartearen lokal berrietako obrak egin arte, lokal horietan kokatuko baita gero EMMOA.

Euskadiko Artxibo Historikoan dauden bitartean, erakunde hori arduratuko da artxiboen alde historikoa digitalizatzeaz, eta lan horren gastu guztien kargu egingo da. Hori egin ahal izateko, EMFren Batzar Orokorraren onarpena behar da, eta, beraz, honako akordio hau onartzea proposatzen da: **EMFren artxibo historikoak Euskadiko Artxibo Historikora lekualdatzeko baimena ematea, hark gorde eta hedatu ditzan, eta alde historikoaren digitalizazioa egin dezan.**